



XVIII Congreso SibE  
XIII Congreso IASPM-España  
V Congreso ICTMD-España

**esmuc** | Escola Superior  
de Música de Catalunya

SIBE  Sociedad de  
Etnomusicología

## MUSIKA ETA GATAZKA SOZIALA ETNOMUSIKOLOGIAREN PARADIGMAK, IKUSPEGIAK ETA ERRONKAK

2025eko azaroaren 6, 7, 8 eta 9a  
**Escola Superior de Música de Catalunya**  
Bartzelona

**SIBE Kongresuaren** edizio honek, giza gatazka sozialetan etnomusikologiaren rolaen hausnarketa kritikoa eta ezagutzaren produkzioa sustatzea du helburu, diziplinentzat interesgarriak diren beste gai batzuk ahaztu gabe ere. Gatazka gizarte-bizitza osoan haragitutako artikulaziotzat hartuta (Giner 1995), botere- eta hegemonia-eztabaidak gertatzen diren agertoki ugari antzeman daitezke. Musika, potentzial sinboliko handiko elementua den aldetik, gatazka-agertoki horien parte da, eta, batzuetan, nagusi diren estamentuen zerbitzura dagoen arma boteretsu bihurtzen da. Beste batzuetan, forma kultural alternatibo eta disidenteen erresistentziaren isla da.

Gatazka, bere forma arruntenetan eta erritualizatuenetan, gizarte-ordenak birdefinitzeko, lurraldeak (fisikoak zein sinbolikoak) mugatzeko eta komunitate-kohesioa indartzeko tresna ere bada. Aldi berean, "drama sozial" turneriarra (1988) den heinean, gatazka pizgarria izan daiteke.

Musikaren eta gatazkaren arteko harremana lehenago aztertu da etnomusikologia aplikatuaren ikuspegi metodologikotik, eta horren erakusgarri dira Araújo (2006), O'Connell & Castelo-Branco (2010), Harrison, Mackinlay & Pettan (2010), Haskell, Pettan & Titon (2015), edo Castro Roa (2018). Ekarpn horiek gogoeta egitera gonbidatzen gaitu, etnomusikologia bezalako diziplina akademiko batek gatazka-agertokietan har dezakeen konpromisoari buruz, izan hauek armatuak, indarkeria esplizituen pean eroriz, izan hauek egunerokoak, inplikaturako alderdien arteko etengabeko negoziazioak eraginez.

Era berean, gaur egun inguratzen gaituzten gatazketatik distantzia hartzea posible ote den hausnartzera garamatza. Adierazpen-fenomenoak ikertzen dituzten pertsonak garen aldetik, espazio politiko, ekonomiko eta etnizitarioekin oso lotuta

daudenak, urratsez urrats igarotzen gaituzte. Aurreko ikerketek frogatzen dutenez, etnomusikologiak testuinguruaren azterketa kritikotik eratorritako proposamen estrategikoak ekar ditzake. Proposamen horiek gatazkak konpontzen lagundu dezakete, eragileek berek onartutako tresna eta kode kulturalen erabilera indartuz.

**SIBE 2025 Kongresuak** espazioak ireki nahi dizkie errealitate eta kasu-azterketa horiei, ikertzaileei gonbita eginez lehendik dauden erreferenteak sendotzeko eta etnomusikologia garaikidearen esparruan berriak eraikitzen jarraitzeko. Diziplinaz gaindiko begirada ere ongi etorria da, SIBEn topaketa guztietan egin ohi den bezala. Hala, bereziki interesgarritzat joko dira kasu horiek jorratzen dituzten proposamenak, hala nola antropologia, kultura-ikasketak, soziologia, folklorea, estetika, herri-musiken ikasketak, musikologia, historia, soinu-ikasketak edo pedagogia, hargatik eragotzi gabe kasu partikular bakoitzean landutako musika-generoak, estiloak eta tradizioak.

**SIBek**, edizio honetan ere, **SIBE Júnior** izeneko proposamenak jasotzeko ibilbideari eutsiko dio, Granadako aurreko kongresu orokorrean (2023) hasi zena funtzionatzen, eta erantzun zein harrera ona izan zituena. Horrela, gradu, graduondoko edota masterretako ikerketa programa bat burutzen ari diren ikasleentzako, beren proposamena bidaltzeko modalitate hau izan daiteke aproposena. Horrek ebaluazio egokiagoa ekarriko du, prestatzen ari den pertsonaren ikerketa-fasearekin bat datorrena. Horrekin, SIBek ikertzaile berrien parte-hartze handiagoa bilatu nahi du, SIBEn beren lanak aberasteko eta ingurune plural batean beren kezkek hasieratik partekatuzeko espazio egokia ikus dezaten.

Jarraian, bidalitako proposamenak kokatzeko zenbait gai-ildo azaltzen dira. Honekin batera, biltzarreko gai nagusitik urrun dauden gaiak jorratzen dituzten proposamenak ere bidali daitezkeela ere gogoratzen da:

- Gatazka, lurraldetasuna eta geopolitika
- Etnomusikologia aplikatua eta gatazka: ekarpen metodologikoak
- Musika eta zentsura
- Hezkuntza formala eta informala: ezagutza musikalaren transmisioak
- Ahozko tradizioa eta gatazka
- Landa- eta hiri-tentsioa
- Erritualizazioa eta performance-a
- Proposamen pedagogikoak gatazkaren kudeaketa gisa
- Gatazka eta teknologia berriak
- Ikerketa multimodala gatazka-testuinguruetan
- Genero-identitateak, musika eta gatazka
- Etnizitateak gatazka-testuinguruetan
- Gatazkari eta musikari buruzko ikuspegi historikoak
- Gatazka eta ikus-entzunezko baliabideak

- Esku-hartze soziala eta ondarearen aberriratzea
- Jabetza intelektuala eta egile-eskubideak
- Gatazka, boterea eta postkolonialtasuna

### Baieztutako hizkariak

- **Prof. Simone Krüger Bridge** - Liverpool John Moores University (UK)



- **Dr. Ana Flávia Miguel** - Departamento de Comunicação e Arte (DeCA), Universidade de Aveiro (UA), Instituto de Etnomusicologia.



### Onartutako formatuak

**SIBE konferentziak** hiru parte-hartze mota onartuko ditu: banakako komunikazioa, panela eta posterra.

Onartutako hizkuntzak hauek dira: gaztelania, portugesa, ingelesa, katalana, galegoa eta euskara.

## Banakako komunikazioa

250 eta 300 hitz arteko laburpenak onartzen dira, erreferentzia bibliografikoen zerrenda labur batekin (eta/edo iturriak, hala badagokio) eta hiru edo bost gako-hitzen zerrendarekin batera. Egilearen biografia labur bat ere gehitu beharko da, eta aurkezpena zein gai-arlotan sartzen den zehaztu beharko da.

Komunikazioak gehienez ere **20 minutukoak** izango dira, eta eztabaidarako 10 minutu egongo dira. Ikus-euskarria erabiltzea gomendatzen da, aurkezpenaren jarraipena errazteko.

## Panela

Panel edo mahai-inguruetarako proposamenak aurkeztea onartuko da, beti ere Biltzarraren aurretik antolatutakoak.

Antolatzaileak panelaren laburpen orokor bat eta banakako partaidetza bakoitzaren laburpen guztiak (250-300 hitz bakoitza) bidali **beharko** ditu. Era berean, gako-hitzen zerrenda aurkeztu beharko du, bai eta parte-hartzaileen izenen eta haien biografia laburtuen zerrenda osoa ere.

Panelen formatua **90 minutukoa** izango da, hiru komunikazio barne (30 minutu komunikazio bakoitzeko). Mahai-inguruen kasuan, gehienez sei parte-hartzaile onartuko dira, eta bakoitzak 10 minutu izango ditu ikusgai jartzeko. Saio bakoitza, bai panelekoa zein mahai-ingurukoa, panel edo mahaiaren antolatzaileak moderatuko du, eta gutxienez **30 minutu** utzi beharko ditu eztabaidarako.

## Posterra

250-300 hitz bitarteko laburpenen bidalketa onartuko da, egilearen biografia labur batekin eta hiru edo bost gako-hitzen zerrendarekin.

Espazio bat egongo da onartutako posterrak erakusteko, eta ordu-tarte bat ere zehaztuko da, egile bakoitzak gehienez ere **10 minututan** aurkeztu ahal izan dezan bere lana.

Onartutako proposamenek [hemen](#) dauden zientzia-posterrak aurkezteko eta diseinatzeko arauak bete beharko dituzte.

## Proposamenen bidalketa

Proposamenak hurrengo web-orrialdearen bidez bidali beharko dira: <https://sibe2025.sciencesconf.org/>

2025eko martxoaren 30era arte onartuko dira bidalketak.

Parte-hartzaile bakoitzak SIBEko kide izan behar du. Harpidetu zaitetz [hemen](#).

## Batzordeak

### Batzorde zientifikoa:

Alicia González Sánchez (Conservatorio Superior de Música de Córdoba)  
Amalia Casas Mas (Universidad Complutense de Madrid)  
Ana Flávia Miguel (Universidade de Aveiro)  
Andrew Snyder (Inet md-Universidade Nova de Lisboa)  
Dario Ranocchiari (Universidad de Granada)  
Enrique Cámara De Landa (Universidad de Valladolid)  
Fernán Del Val Ripollés (Universidad Nacional de Educación a Distancia)  
Francisco Bethencourt Llobet (Universidad Complutense de Madrid)  
Gabriel Rusinek (Universidad Complutense de Madrid)  
Igor Saenz Abarzuza (Universidad Pública de Navarra)  
Isabela de Aranzadi (Universidad Autónoma de Madrid)  
Iván Iglesias Iglesias (Universidad de Valladolid)  
Josep Martí i Pérez (Institut Català d'Antropologia)  
Karlos Sánchez Ekiza (Universidad del País Vasco)  
Lidia López Gómez (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Luís Costa Vázquez (Universidad de Vigo; Conservatorio Superior de Música de Vigo)  
Magda Polo Pujadas (Universitat de Barcelona)  
Marcos Andrés Vierge (Universidad Pública de Navarra)  
Maria Jesús Castro Martín (Esmuc; Conservatori Superior Liceu)  
Marta García Quiñones (TecnoCampus-Universitat Pompeu Fabra)  
Pedro Cravinho (Royal Birmingham Conservatoire)  
Rolf Bäcker (Escola Superior de Música de Catalunya)  
Rubén López-Cano (Escola Superior de Música de Catalunya)  
Ruth Piquer Sanclemente (Universidad Complutense de Madrid)  
Sergi González González (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Sílvia Martínez García (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Simone Luci Pereira (Universidade Paulista)  
Susana Moreno Fernández (Universidad de Valladolid)  
Susana Sardo (Universidade de Aveiro)

### Batzorde antolatzailea

#### Batzordearen zuzendaria

Sara Revilla Gútiéz (Escola Superior de Música de Catalunya)

#### Batzordea

Bernhard Bleibinger (Institució Milà i Fontanals-CSIC)  
Horacio Curti (Escola Superior de Música de Catalunya)

Jaume Ayats i Abellà (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Jordi Roquer González (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Josep Lluís Lancina Murillo (ICA - Grup d'Etnomusicologia)  
Josep Martí i Pérez (Institut Català d'Antropologia)  
Lidia López Gómez (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Luca Chiantore (Escola Superior de Música de Catalunya)  
Marc Heilbron (Escola Superior de Música de Catalunya)  
María Jesús Castro (Escola Superior de Música de Catalunya, Liceu)  
Joaquim Rabaseda (Escola Superior de Música de Catalunya)  
Rolf Baecker (Escola Superior de Música de Catalunya)  
Sergi González González (Universitat Autònoma de Barcelona)  
Sílvia Martínez García (Universitat Autònoma de Barcelona)